Tradizioaren aurkakotasuna (1680)

XVII. mendean tradizio forma guztiekiko errespetua nagusitzen bazen, Pierre Bayle tradizio horien eta historialarien narrazioen kritikatzailea dugu bere Pensées sur la Comète *idazkian eta XVIII. mendeko filosofoekin pareka daiteke. «Munduko hiritarra naiz eta ez nago enperadorepean, ez eta Frantziako erregepean, egiaren zerbitzupean baizik» idatzi zuen.*

Poesia eta historiaren artean dagoen sinpatiaz hitz egiten dutenekin harritzen naiz (...); noski, haiek olerkariekiko begikotasun izugarria dute, eta batzuek zein besteek mirariak eta fikzioak kontatzen dituzte. Zorionekoak olerkari bikain hauek, Luis Handiaren historia jorratzen dutenak, hau mirari guztiz eraginkorrez beterik baitago! Fikzioaren menpe izan gabe, ohiz kanpoko gauzak kontatzeko olerkariek eta historialariek duten nahi nagusia emendatu dezakete.

Honekin, Jauna, nire iritziz historialarien aginpidea ez dago zalantzan; baina haien sinesberatasuna kontuan hartu gabe, ados nago beste hainbeste kometaren agerpenak ohartarazten dituztela eta beste hainbeste kometaren agerpenen ondorengo urteetan zoritxarra ekartzen digutela sinesten dela. Hauek guztiak onartzen ditut: baina hau da, besterik ez, onartzen dizudana, eta zuk arrazonatuki lortu dezakezuna. Orain ikus dezagun zertan bukatuko den hori guztia. Erronka jotzen dizuet kometen agerpena ondorengo kalteen kausa edo ikurra izan den frogatu dezazuen zuen sotiltasunaz. Horrela, historialarien froga bakarra da kometak agertu direnean berehala izan dela munduan nahasmendua; eta horrek ez du frogatzen hauetariko bat bestearen kausa edo igarpena denik.

Pierre Bayle, *Pensées sur la Comète,* 1680[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Joseba Zuazoren baimenaz].